



**Foru Dekreturako proiektuaren gaineko aurretiko kontsulta publikoa, Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Lanbide Heziketako tituluetako curriculumak aldatzen dituen foru dekreturako proiektua prestatzeko prozedurari hasiera emateari buruzkoa.**

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikulua ezartzen duenez, lege baten edo erregelamendu baten proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nagusienek puntu hauei buruz:

- A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- B) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.
- C) Arauaren helburuak.
- D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Dokumentu honek helburu du indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkidearen 133.1 artikulua mahaigaineratzen dituen gaiei konponbidea ematea, baita oinarria izatea ere Nafarroako Foru Komunitatean ezarritako Lanbide Heziketako tituluetako curriculumak aldatzen dituen foru dekretuaren egitasmoa prestatu aurretiko kontsultarako, etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta herritarrek, oro har, parte hartzeko eta ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

**A) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.**

Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoaren 6. artikuluan xedatutakoaren arabera eta Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 47. artikuluan aurreikusitako eskumenak erabiliz, Lanbide Heziketako tituluen ikasketa komunak onetsi ondoren, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak curriculumak Foru Komunitatearen esparruan nola garatuko diren zehaztu nahi du. Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuan ezarritakotik ondorioztatzen denez (hala adierazten da 8. artikuluan), hezkuntza administrazioek behar diren curriculumak ezarriko dituzte, aipatutako errege dekretuan eta Lanbide Heziketako ikasketak erregulatzen dituzten arauetan xedatutakoa errespetatuz. Era berean, artikuluko horretan esaten da hezkuntza administrazioek, Lanbide Heziketako ikasketen curriculumak ezartzerakoan, beren eskumeneko lurraldearen errealitate sozioekonomikoa kontuan izan behar dutela, baita garapen ekonomiko eta sozialaren perspektibak ere, ikasketek beren inguruko sektore sozioproduktiboen kualifikazio-beharrak une oro kontuan izan ditzaten.

Curriculum-diseinuak, behar den prestasunaz, egokitu beharko dira gure Komunitateko ekoizpen sistemaren eta zerbitzuak emateko sistemaren berezko berezitasunera, eskariarekin bat egiten duen eta Nafarroari

egokituta dagoen lanbide kualifikaziora bideratzen duten elementuak sartuz. Ildo horretan, lan-merkatuen bilakaerak agerian utzi du ikasleek gaitasunak indartu behar dituztela laneko arriskuen prebentzioarekin lotutako alderdietan (halaxe dio Prebentzio zerbitzuen erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan). Horren guztiaren ondorioz, ondorioztatu zen Lanbide Heziketako titulu guztietan zeharka irakasten den Lanerako Prestakuntza eta Orientabidearen lanbide modulua birdiseinatu behar dela eta heziketa zikloetako lehen ikasmailako prestakuntzan modu sistematikoan ezarri behar dela.

**B) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.**

Nafarroako Foru Komunitatearen esparruko Lanbide Heziketako erdi edo goi mailako heziketa zikloak ikasten ari diren ikasleentzako laneko arriskuen prebentziorako oinarrizko prestakuntza ziurtatzeko prozedura arautzen duen martxoaren 6ko 27/2017 FORU AGINDUAREN ondorioz (heziketa ziklo horiek argitaratu dira Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren babesean).

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak araututako hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako ikasketei dagozkien teknikari eta goi mailako teknikari tituluak ezartzen dituzten eta haien gutxieneko ikasketak finkatzen dituzten errege dekretuetako hirugarren xedapen gehigarriaren arabera, Lanerako Prestakuntza eta Orientazioaren lanbide moduluan ezarritako prestakuntzak gaitasuna emanen die ikasleei laneko arriskuen prebentziorako oinarrizko jarduerak egiteko behar diren lanbide-ardurak bere gain hartzeko; ardura horiek ezarrita daude Prebentzio Sistemen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan.

Hezkuntza Departamentuak komenigarritzat jo du Lanbide Heziketako titulu guztietan zeharka irakasten den Lanerako Prestakuntza eta Orientazioaren lanbide modulua birdiseinatzea eta heziketa zikloetako lehen ikasmailan ematen den prestakuntzan sistematikoki esleitzea.

**C) Arauaren helburuak.**


Lanbide Heziketako ikasleek enpresetan praktikak egiten dituzte. Hartara, enpresak gero eta gehiagotan eskatzen ari dira ikasle horiek laneko arriskuen prebentzioko ziurtagiria izatea, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamendua onesten duen urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuan esaten den bezala. Gainera, Lanerako Prestakuntza eta Orientazioaren moduluan egiten den prestakuntza heziketa zikloetako lehen ikasmailan sistematikoki esleitzen da.

**D) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.**

Ez da balizko bestelako konponbiderik aurreikusten.

Iruñean, 2017ko martxoaren 6an.

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko zuzendaria



Esther Monterrubio Ariznabarreta